

www.noaia.com

# Noaia!!!



Hitzaldi sorta prestatu du Nafartarrak taldeak

M-29

Langileen eskubideen aldeko greba



KEZEN AURREAN  
ORUJABETZA  
greba orokorka

**Marije**  
Arropa denda

**Denboraldi berria!**  
Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - **USURBIL**

**FUNERARIA GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

**ASEGURUA DUTEN FAMILIENTZAT:**  
Deitu **ZUZENEAN** gure ehorztetxera, zerbitzua ematen hasteko denbora murriztuz, izapide guztietaz arduratuko gara eta **BONIFIKAZIO** berezi bat zuen polizan

**ASEGURU GUZTIAK  
BEILATOKI-TANATORIO GUZTIAK  
ERRAUSKETAK  
OSPITALETAN ERE ZERBITZUA**

**943 36 21 63 (24H)  
660 388 652 - 608 16 77 92**

[info@funerariagonzalez.es](mailto:info@funerariagonzalez.es) [www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

# HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO  
2010, 2011 eta 2012an jaio eta jaioko diren haurrak

- **NON:** Kalezarren
- **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -17.00\*
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- **HITZORDUA:**  
9.30etatik 11,30etara
- **ATE IREKIEN EGUNA:** apirilak 26ean 17.00etan euskaraz eta 18.30tan elebiz

OSASUN HEZIKETA
 ELIKADURA EKOLOGIKOA
 JANTOKIA
 ZERBITZU PEDAGOGIKOA, GURASO ESKOLA
 EKIMEN BEREZIAK

**943 374 061**

Albistea iruditan!

## Loatzo eta Zumarte elkarrekin, Soinurbil jaialdian

Soinurbilek batu zituen Loatzo eta Zumarte Musika Eskoletako ikasleak. Urtero egiten dute elkar-truke moduko eguna. Eta aurten, Tolosaldekoak izan dira Usurbil aldera gerturatu diren ikasleak. Sutegin aritu ziren elkarrekin, Loatzokoak eta Zumartekoak, martxoaren 22ko arratsaldean. Leporaino bete zen auditorioa eta ikusleek, tartean gurasoak eta lagunak, txalo zaparrada batekin eskertzen zuten saio bakoitza. Baina ikasleen saioez gain, bestelako ikuskizunekin gozatzeko aukera izan da aurtengo edizioan.



ZUMARTEKO IKASLEAK, "EZER EZ DA BETIKO" KANTUA JOTZEN.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiarde Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!**

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitate@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UGAITZ AGIRRE

## Buruhausteak eta kontakizunak

**K**aixo irakurle, gaurkoan ere zuregana nator zerbaiti buruz hitz egitera une entretenigarri bat pasa dezazun xede harturik. Eta zer esango dizut? Ordu txikitan inspirazioaren gorakada bat ematen omen da, artista batzuek hori diote bederen eta ni ere beraien ohiturari jarraikiz horrela nabil ordenagailuaren aurrean irakurtzen ari zaren lerro hauek idazten. Irratian dio Osasunak Levanteri irabazi diola eta Athleticcek bana egin duela Clementeren esanetara jarri berri den Sporting-en aurka.

Futbolaren sukarrak arintzeko zaleak informatuta jarri behar omen dira eta Izar Betaurrekodunek konpainia egiten didaten bitartean atzoko egunez Nafarroan barrena egin genuen irteera gogoratzen dut. Ederki pasa genuen eta Amañur eta Elizondo aldean historiari bere tartea eginik 500 urte betetzen dira eta Gaztelako tropek Nafarroako erresuma konkistatu zutela. Eta guk gaztelu suntsituaren aztarnen gainean ipini genituen gure oinak bertara azaldu zirenei klase partikularrak emateko asmoz. Imajinazioa aieratzen utzi genuen une batez eta nafar gudari bihurtu ginen instant txiki batez bada ere Baztan ibarrean gora zetozen soldadu atzerritarrak irudikatzeko asmoz. Eta funtzionatu zuen.

Geroago Elizondoko kaleak trikiti soinu alaitzen zituen bitartean Iratxek panderoa trukutzen genuen denon artean garagardo egarriak asetzeko asmoz, itzaletan ere bero apur bat egiten baitzuen. Kafearen eta patxaranaren ostean jolasak. Nork esango zuen pelotari bat Iruñako lehen errege izan zitekeela? Edo Urnietak Donostialdea osoa hartzen zuela? Edota pertsona bat lapitz bat eskuetan hartuta Sabino Arana izan zitekeela? Behintzat konturatu ginen bertan elkartu ginen Andoain, Hernani, Lasarte eta Usurbilgo gazteak historia eta kultura modu entretenigarri eta barregarri batean ikas zitekeela. "Behin batian Loiolan" abestea eta dantzatzea Elizondori agur esateko modu bat izan daiteke. Eta bidea entretenigarriago egin daiteke Kalexarrekoen dauden abesti guztiak kantatzen. Ahotsak ahal zuen arte bai behintzat.

Eta igandea beste egun bat da parrandaren azken orratzak atzean utzi nahian. Parranda gabeko larunbata ezagutu nahi nituzke, baina beti badago norbait berarekin elkartzeko dena ohitura mantentzea helburu izanik. Ohitura onak ezin baitira galdu. Eta igandeko ajearen konpainian Itayak antolatutako bideo emanaldi batera azaltzea ere ohitura ona denez, Sutegiren atarian topatu ginen hogeitaz bat gazte sustraiak eta haizeak zer sinbolizatu nahi duten galdezka. 1975ean Luis Eduardo Autek "Al alba" kantatzen zuen bost heriotzen saminak hartuta. FRAP eta ETA eskutik helduta, bakoitzak bere helburuekin, baina une batez eskutik helduta. Izenak bost ziren, baina hori badakizue eta ez dizut aspertu nahi zuri memoria egiten. Hori beste baterako utz dezakegu ez bazaizu axola.

Eta emanaldiaren ostean kafe bat edo garagardo bat nikotina apur batekin nahasten delarik ezpainetan. Igo nazazu nire mendira, zure gailurretik gora... abesten du Mikel Urdangarinek bi abestik mugatzen dutelarik bere iraupena. Eta telebistan esan dute Ordiziako azokak konkistak bezain beste urte dituela, PSOeren suizidioa Andaluziak eta Asturiasek apur bat baretu dutela. Greba Orokorren bezperetan langile alderdi baten berpizkundea. Ez da siglengatik izango, tontoenak hori ere badaki, baina beren mitinetan zerbait pozgarria esan dezakete gaurtik aurrera. Lehen siglengatik izango da, beste hirurek burua altxatzerako Azken Epaia iritsiko baita martxa honetan. Eta horrela goaz orria betetzen kolore zuriak (beno zure kasuan beltza ikusiko duzu, baina nire kasuan ez da horrela) alergía apur bat sorrarazten baitit. Baina ez dizut gehiago gogaitu nahi eta nik ere nire gauzak egin behar ditut "daga vizcaina" deituriko arma baten inguruan. Historia ikasten ari den baten kontuak, akaso hurrengo batean hitz egingo dizut horri buruz, baina gaurkoan zail samarra ikusten dut. Bitartean ondo bizi, dena neurrian hartu, pasa gabe, horrela irakurri ondoren zer iruditu zaizun esateko aukera izango baituzu. Agur Jaunak (eta Andereak), Jaunak (eta Andereak) agur, agur t'ardi...

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

## Zebrabide arriskutsua

**I**rakurle batek, e-posta bidez, honako argazkia eta honako testua bidali digu. "Zebrabide hau pasa behar dugunok arrisku bizian aurkitzen gara batzuetan, kotxeek ez baitute zebrabidea errespetatzen, eta batez ere Errekaldetik datozenak abiadura bizian doazelako. Behar bezala pintatuta eta errepidean koxkak jarrita, ez al litzateke arriskua murriztuko?". Horra iradokizuna.



IRAKURLE HONEK ARGAZKI HAU IGORRI DIGU, KEXUAREKIN BATERA.

# Larunbat honetan, Elkartasun Eguna

**E**uskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko Elkartasun Eguna antolatu dute larunbat honetarako, ITAYA Gazte Asanbladak, Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak eta Nafartarrak taldekoek. Herri kirolak, bertso bazkaria, kantu jira edota kontzertu gaua iragarri dira martxoaren 31rako.

Denetariko ekitaldiak tartekatuko dira larunbat goizean hasi eta igande goizaldera arte luzatuko den Elkartasun Eguneko egitarauan. Herri kirolak eguna hasteko. Eta ondoren, bertsolarien txanda etorriko da. Unai Gaztelumendi eta Imanol Lizarazu "Habana"rekin triki-bertso poteoa ospatuko da Kaxkoan eta jarraian bertso bazkaria frontoian. Asteazken hone-takoa, otordurako txartelak erosteko azken eguna izango da. 15 eurotan eskuratu ahal izango dituzte langileek; 12 eurotan, ikasle eta langabetuek.

## OSTIRALEAN

"Bezperan, euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da"

Larunbat honetarako, kantu afaria ere antolatu da Artzabalen. Kasu honetan, txartelak 22 eurotan erosi ahal izango dira Bordatxon eta Artzabalen. Menua hau izango da: espinaka eta ganba pudina; bakailu takoa saltsan; basurde gisatua; flana izozkiarekin; edaria (urteko ardoa, sagardoa), ogia eta kafea.



OSTIRALEAN, ELKARRETARATZEA IZANGO DA MIKEL LABOA PLAZAN, 20:00ETAN.

## Kontzertu gaua

Afalaurretik, eta hilabeteko azken larunbata izanik, kantu jira ospatuko da Kaxkoan. Saio berezia izango da ordea. Ohiko orduan hasiko da ekitaldia, iluntzeko 19:00etan, baina oraingoan kantuzaleak Mikel Laboa plazatik ez, Askatasuna plazatik abiatuko dira. Lurralde ezberdinetatik etorritako abeslari eta musikariekin.

Elkartasun Egunari kontzertu gauak emango dio amaiera: Bertan Bera, Materia Gris, Trifulka eta Laket taldeek emanaldia eskainiko dute frontoian, 23:00etatik aurrera.

## Elkarretaratzea

Elkartasun Egunerako manifestazioa ere deitu da. Mikel Laboa plazatik abiatuko da, 18:00etan. Baina ez da izango deitua dagoen mobilizazio bakarra. Bezperan, hilabeteko azken ostirala izanik, euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da. Ohi bezala, 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

## "Elkartasuna Eraikiz!" ekimeneko egitaraua

11:00 Herri kirolak frontoian.

12:30 Triki-bertso poteoa: Unai Gaztelumendi eta Imanol Lizarazu "Habana"rekin.

14:00 Bertso bazkaria frontoian, Unai Gaztelumendi eta Imanol Lizarazu "Habana" bertsolariekin.

18:00 Manifestazioa Mikel Laboa plazatik.

19:00 Kantu-jira Askatasuna plazatik. Lurralde ezberdinetatik etorritako kantariez eta musikariez lagunduta; iparra eta hegoa elkarrekin kantuan! Kantu Liburuxkarekin agertu...

21:00 Kantu afaria Artzabalen.

23:00 Kontzertuak frontoian: Bertan Bera, Materia Gris, Trifulka Laket.

Antolatzaileak: ITAYA, Euskal Kantu Taldea eta Nafartarrak.

**BENTA TABERNA**  
HANBURGESAK  
Oilasko erreak  
Ogitartekoak  
943 36 93 05

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

Jose Aizpurua  
Unanue eraikuntzak S.L.  
teilatua eta fatxadak  
943 37 38 79 - 620 80 01 86  
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Agurtzane Solaberrieta, D3M aurkako epaiketaren auzipetua

# “Demokrazia formalaren zutoinak diren oinarrizko eskubideak epaituko dira”

**A**pirilaren 30ean hasiko da Madrilgo Auzitegi Nazionalan, D3M eta Askatasunaren aurkako epaiketa. 13 euskal herritar auziperatu dituzte, tartean Agurtzane Solaberrieta. Epaiketa hasteko hilabete falta dela NOAUA!-ren galderei erantzun die usurbildarrak.

**NOAUA! Epaiaketaren nondik norakoak zehaztu zaizkizue?**

**Agurtzane Solaberrieta.** Hiru urte zain egon eta gero, urtarrilaren amaieran jakin genuen apirilaren 30ean hasiko zela gure aurkako epaiketa. 13 lagun gaude auzipetuta: Arantza Urkaregi, Eli Zubiaga, Iker Rodrigo, Imanol Nieto, Amparo Lasheras, Hodei Egaña, Unai Berrostejeta, Zuriñe Zorrozueta, Fernando Antia, Jose Antonio Munduate, Xabier Isasa, Aitor Ligerzana eta ni neu. Aitor gazte arabarra espetxean dago gaur egun, gazte independentisten kontrako polizia operazio batean atxilotu zutenetik. Fiskalak gutako bederatziren aurka, bederlatzi urteko espetxe zigorra eskatu du, D3M hautetsi plataformaren aginduz osatu izana leporatuta, eta, ondorioz, erakunde armatuko kide izatea ere egozten digu. Gai nontzeko laurei, ETaren aginduz Askatasuna alderdia sortu izana leporatzen die; ETari laguntza emateko delitua. Zazpi urteko espetxe zigorra eskatu dute eurentzat.

Guztira bederlatzi egunez luzatuko da epaiketa, eta, amaiera eguna maiatzaren 18an zehaztu dute. Hori beti ere dena aurreikusitako bezala joaten bada. Hiru aste ibili beharko dugu Madrilera atzera eta aurrera, horrek suposatzen duen guztia-rekin.

**N. Egungo testuinguruak eraginik izan dezake epaiketaren?**

**A. S.** Euskal Herriko hiru milioi biztanleentzako demokrazia aldarrikatzen zuen eskaintza elektoralak da epaituko dena. Demokrazia formalaren zutoinak diren oinarrizko eskubideak epaituko



APIRILAREN 30EAN HASIKO DA EPAIKETA AUDIENTZIA NAZIONALEAN.

dira: biltzeko, adierazpen eta hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea. Beraz, izaera guztiz politikoa duen epaiketa batetaz ari gara. Konponbidearen aldeko karrilean jartzeko exijitzen zaio Madrilgo gobernuari. Haatik, blokeo estrategiarekin erantzuten jarraitzen du gure herrian ireki den egoera berriaren aurrean. Eutsi egiten dio immobilismoari eta errepresio errezeta zaharkituei. Eta gure aurkako epaiketa horren adibidea da.

## AGURTZANE SOLABERRIETA

“Euskal Herriko biztanleentzako demokrazia aldarrikatzen zuen eskaintza elektoralak da epaituko dena”

**N. Matrioska kolektiboa eraikitzearen beharra azpimarratu da berriki prentsaurreko batean.**

**A. S.** Eleak mugimenduak egindako deia da: auzipetuei babesa emateko eta halako epaiketa politikoak salatzen. Herri batzordeak sortzera deitu dute, guztion artean sabel kolektibo bat eraiki dezagun, norik bere amaren sabelean babesa bilatzea nahikoa ez dela jakitun.

**N. Manifestaldi nazionala maiatzaren 5ean. Baina mobilizazio gehiago deituko dira, baita Usurbilen ere?**

**A. S.** Asmoa daukagu gure herrian batzorde bat sortzea, eta horretarako herritarrei deialdi irekia egingo zaie, eskubide zibil eta politikoen urraketa-rekin kezkatuta dagoen edonork parte har dezan.

Gainera, gogoratu nahi dut gure herrian, nire kasuaz gain, badagoela beste bat nire antzera: Marisa Alejandro. Marisa ere epaiaketaren zain dago, jardura politikoa burutzeagatik. Ni bezala, baldintzapeko askatasunean dago, eta, gainera, espetxetik atera ahal izateko, izugarritzko fidantza ordaindu behar izan zuen. Batzorde horren zeregina elkartasun ekimenetik harago doa: aro politiko berri honetan eskubide zibil eta politiko guztien errespetua eta bermea exijitzea, epaiketa politikoak eta jazarpena bertan behera uzteko exijitzearekin batera.

Eta maiatzaren 5eko manifestazioan horixe eskatuko da. Nire ustez, ezinbestekoa da halako ekimenak abiatzea herriz herri, horixe izango baita epaiketa irabazteko eta gu aske ateratzeko modu bakarra. Herri honek duen indarrean sinisten dut.

# “Guztion eskubideak oraindik ere errespetatu eta bermatu gabe jarraitzen dute”

**E**uskal preso eta iheslari politiko-en eskubideen aldeko hilabete-ko azken ostiraleko elkarretaratzea burutuko da, ohi bezala, ostiral honetan, martxoak 30, iluntzeko 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan. Oraingoan ordea, elkarretaratzearen biharamunerako egun osoko Elkartasun Eguna antolatu dute, ITAYA Gazte Asanbladak, Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak eta Nafartarrak taldekoek.

**N.** Elkartasun ekimenok beharrezkoak izaten jarraitzen dute. Bizi garen garai honetan, sarri aipatu den indar metaketa garrantzizkoa da ezta?

**A. S.** Aurrera indartsu egiteko beharrezko dugun dosia da elkartasuna. Eta epaiketa izango genuela jakin orduko, elkartasun mezu ugari jaso ditut. Berdin atxilotu edota espetxeratu gintuztenean ere. Nik bezala, nire familiak, eta oro har, euskal preso eta errepresaliatu guztiek eta euren senideek jasotzen duten elkartasuna, berotasuna eta babesba izugarria da. Norberari lehen pertsonan bizitzea tokatu arte, ez zara horretaz jabetzen. Euskal Herriaren oinarritzko zutoina eta balorea da elkartasuna, eta egunero adierazten dugu modu batera edo bestera. Guztia da beharrezkoa eta eskertzekoa, baina une politiko honek elkartasunaz gain, herritarren konpromisoa ere eskatzen du, herritarren lana, elkarlana, indar metaketa, parte-hartzea eta atxikimendua.

**N.** Hiru urteotan, honek guztiak zer modutan baldintzatu du zeure eguneroko bizitza?

**A. S.** Damoklesen ezpata gainean duzula sentitzen duzu. Honetan guztian gogorrena eta gaitzitzen zailena, atxilotetako unea izan da. Hartzen duzun sustoa, beldurra, itzela da. Ezin da hitzez azaldu. Soilik egoera hori bizitu duenak daki zertaz ari naizen. Esaterako, gau asko eman ditut lokartu ezinik, edozein zarata txikirekin esnatzen nintzen, eta gauean gerta daitezkeen soinu guztiak ikastera iristen zara. Orain askoz lasaia nago, ume bat izateak ere hori dena ahazten laguntzen dizu. Gainerakoan, orain-



ATXILOTU ZUTEN EGUNETAN MANIFESTAZIO JENDETSUAK EGIN ZIREN.

dik ere astero epaitegira sinatzera joan behar dut, Espainiatik ateratzeko debekua dut. Orain arte 9 urteko zigor eskararekin bizi izan naiz, baina agian hemendik hilabete gutxira, zigor hori betetzeko egoeran izan gaitzke.

**N.** Zer moduz zaude epaiketa hasteko hilabete falta den honetan?

**A. S.** Epaiaketaren data jakin nuenean, egun batzuk urduri xamar eman nituen, baina orain lanean nabil eta epaiaketarekin gogoratzen astirik ere ez dut. Pentsatzen dut epaiketa hurbildu ahala, urduritzen hasiko naizela, eta zer esanik ez, epaiketa bukatu eta gero. Sententziaren zain egon beharra, ezin jakin zenbat luzatuko den aldi hori, absolutioa edo espetxe zigorra izango den, ezin jakin espetxera joan beharko dugun edo Auzitegi Gorenean helegitea aztertzen duten bitartean kalean izango ote garen... Orain, gainera, urtebeteko alaba dut, eta dena beste modu batera hartzen duzu, eta bere begiradapetik begiratzen dut egoera. Egunkoa bizi beste aukerarik ez dugu.

**N.** Beste ezer erantsi nahi zenuke?

**A. S.** Hiru milioi herritarrentzako esparru demokratikoa lortzeko lanean jarraitu behar dugu, izan ere, guztion eskubideak oraindik ere errespetatu eta bermatu gabe jarraitzen dutelako. Bide

horretan, eta Aieteko Adierazpenari jarraiki, ETak izugarritzko urratsa egin du borroka armatua bazterrean utziz, eta orain Espainia eta Frantziako gobernuei dagokie tamainako bereko urratsak egitea. Herritarrei lanerako deia egiten diet, bakoitzak ahal eta nahi duen tokian eta tamainan. Horrekin guztiok izango gara irabazle, eta gure seme-alabei, bakean, demokrazian eta justizia sozialean eraikitako etorkizuna utziko diegu.

## Auziperatuei laguntzeko deia

**L**aguntza kanpaina bat abiarazi da, herriz herri, mezu honen bidez: “luza diezaiegun bostekoa auziperatuei, eskuz esku justiziaren injustizia ikusarazteaz gain, epaiketa politikoaren aurka kalera ateratzeaz gain eman diezaiegun gure babes ekonomikoa ere. Lagun ditzagun apirilean epaituak izango diren D3Mko kideak gure bostekoa luzatuz”, deitu dute. Bost euroko bonoak eskuratze-ko aukera izango da. Edota kontu korronte honetan ere ekarpenak egin ahalko dira: 3035 0095 94 0951113417.

## Pazko Astean, II. Gazte Eguna

**I**azko estreinako esperientziari jarraipena emanez, Ziortza Gazte Elkartek eta Gaztelekuak Gazte Eguna antolatu dute bigarrenaz. Apirilaren 12an ospatuko da. Baina osagarri gisa, eskubaloi txapelketa ere presatatu dute hilaren 14rako.

Ziortza Gazte Elkartea eta Gaztelekuak batu dira berriz, eta elkarlanean egun pasa antolatu dute apirilaren 12rako. Jolasak, bazkaria eta DJ emanaldia tarterkatuko dira gazteak Aste Santu beteko oporraldian murgilduak dauden astean.

Ez hori bakarrik. Gaztelekuko gazteak eta euren gurasoak eskubaloian jokatzeko ikusiko ditugu apirilaren 14an. 12-16 urte arteko herritarrak biltzen dituen guneak eta Hitz Aho Udaregi Ikastolako Guraso Elkartek txapelketa antolatu dute Oiardo Kirolegian. Parte hartzeko

asmotan direnak, aldez aurretik apuntatu beharko dira Gaztelekuan.

APIRILAK 12, OSTEGUNA

**Gazteleku eta Ziortzakoen jaia**

11:00 Oka erraldoia frontoian, Dema plazan eta Askatasun plazan.

13:30 Bazkaria frontoian (norberak ekarrita). 16:00 Ur jolasak, Skate Parkean. 19:00 DJ AFRO, frontoian.

Antolatzaileak: Gaztelekuak eta Ziortza.

APIRILAK 14, LARUNBATA

**Eskubaloi Txapelketa-Kirol Eguna**

10:00-14:00 Gaztelekuko gazte eta gurasoen eskubaloi txapelketa. Izen ematea: Gaztelekuan.

Antolatzaileak: Gaztelekuak.

Laguntzaileak: Hitz Aho Udaregi Ikastolako Guraso Elkartea.



ZIORTZA ETA GAZTELEKUAREN ARTEAN ANTOLATU DA GAZTE EGUNA.

**Organikoaren bilketarik ez da egingo greba egunean**

**M**artxoaren 29ko grebarekin bat egin du atez ateko bilketa zerbitzuak. Honenbestez, hondakin organikorik ez dela bilduko jakinarazi du Udalak.

## Malirako laguntza bilketa, asteburuan

**B**izi duten lehortea dela eta, elikagai faltan dira Maliko herritarrak. Laguntza eskatu dute, janaria, gosez baitira. Larrialdi egoera honetan egin duten deialdiari erantzunez, Usurbilgo Katekesiko 6. mailako ikasleek hara bidaltzeko oinarrizko elikagaiak bilduko dituzte asteburu honetan.

Katekesiko 6. mailako ikasleek berri eman dutenez, Malin "ez du euririk egin, beraz ezin dute landatutako ezer jaso. Orain ez dute ezer jateko. Soilik "Togo" izeneko zereal batekin elikatzen dira, eta hori ere garestia egiten zaie". Egoera honen aurrean, eta aipatu ikasle taldea "mundua aldatzeko, aurrena pertsonak aldatu behar dugula lantzen" ari diren honetan, oinarrizko elikagaiak

bildu nahi dituzte asteburu honetan: arroza, pasta, poteko tomateak eta azukrea. Ikasle taldeak gogorarazten duenez, "guretzat arrunta dena, beraientzat beharrezkoa da".

**"Urrutiko gure lagunak"**

Ondoko argazkian ageri direnak, Maliko Sain Paul eskolako lagunak dira, "urrutiko gure lagunak bihurtu dira" katekesiko ikasleek adierazi dutenez. Ez da Usurbildik hara laguntza bidaltzen duten lehen aldia, "urtero, gabonetan biltzen dugun eskola materiala bidaltzen diegu. Beraiek eskertu egiten digute".

Aipatu moduan, oinarrizko elikagaiak ordu eta lekuotan utzi ahal izango dira asteburuan.



ELIKAGAIAK BILTZEN ARI DIRA KATEKESIKO 6. MAILAKO IKASLEAK.

Martxoak 30, ostirala: 18:00-19:30 Parrokiko bulegoan.

Apirilak 1, igandea: Eliza atarian, 12:00etako meza aurretik eta ondoren.

**Errazkin S.L.**  
igeltseritza orokorra  
943 24 01 76 eta  
649 435 470  
errazkinsl@euskalnet.net  
kale nagusia 47, beheka A

**BORDATXO**  
*edaritegia*  
PINTXO BEREZIAK  
Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**TXAPELDUN**  
**TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurra 2, 943 11 82 53



## Hitzaldi zikloa antolatu du Nafartarrak taldeak, apirileko bigarren hamabostaldirako

**N**afarroa konkistatu zutene-ko bosgarren mendeurre-na betetzen den honetan, hitzaldi zikloa antolatu du Nafartarrak taldeak apirilaren 17tik 26ra. Konkista bera, hezkuntza, iku-rrak, euskara edota independentzia gaiak jorratuko dituzte hitzorduotan. Saio guztiak Sutegin burutuko dira, arratsaldeko 19:00etan hasita. Hitzaldietarako sarrera doan.

APIRILAK 17, ASTEARTEA  
"1512. Nafarroaren konkista"  
Hizlaria: Beñi Agirre.

APIRILAK 18, ASTEAZKENA  
"Hezkuntza transmisioa bakarrik al da?"  
Hizlaria: Mirari Bereziartua.

APIRILAK 20, OSTIRALA  
"Ikurriña-nafar bandera: mahai ingurua"  
Hizlaria: Luis Mari Martinez Garate.

APIRILAK 24, ASTEARTEA  
"Independentziaren bideragarritasun ekonomikoa"  
Hizlaria: Oscar Arantzabal.

APIRILAK 26, OSTEGUNA  
"Euskara,  
Hizkuntza bat bere bakardadean".  
Hizlaria: Pako Aristi.

APIRILAK 27, OSTIRALA  
"Gartxot" pelikula, Asisko Urmene-  
tak eta Juanjo Elordik zuzendua.  
22:00etan Sutegin. Sarrera, 5 euro.



PAKO ARISTIK  
EUSKARA IZANGO DU HIZPIDE  
APIRILAREN 26KO HITZALDIAN.

**Euskaraz Errentagarriagoa!**

2011ko errenta aitortpena euskaraz egin dezakezu!  
Biderkatu zure etekina!

Autolikidazioa aukeratu baduzu...  
Orain da garaia, Euskara Aukeratu!!!

902100040 telefonoan  
edo [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) webgunean.

**x2**

Usurbilgo Udala



## Kontu kontari, transmisio lanean

Ipuin kontalari ezaguna da Beatriz Egizabal lasartearra, Buruntzaldean. Ikastaroekin batera, batez ere haurrentzat eskaintzen ditu saioak, baina mundu hau helduena ere badela aldarrikatzen du. Eta helduak behar ditu ipuin kontaketak, askok dituzten seme-alaba txikiei Egizabalek dioen moduan, baloreak, euskara transmititzeko. Horretan urteak daramatza Beatrizek.

**L**iburuak oso tresna lagungarriak dira. Hala dio Beatriz Egizabal ipuin kontalariak. “Gurasoak konturatzen dira, ipuinekin gauza asko aldatu daitezkeela. Eta batez ere ondo pasa daitezkeela”.

Lan gehiena hurrekin egiten duzue, baina baita helduekin ere?

Beatriz Egizabal. Hor dugu erronka, helduekin. Saiotara gerturatzen diren helduek sorpresa handia hartzen dute. Joaten dena oso harrituta gelditzen da, ez duelako espero saioak irauten duen ordu horretan egon zaitezkeenik pertsona bat zerbait kontatzen eta zu hain sarruta. Kuriositatea hurrek bai, baina helduek ere badute.

### BEATRIZ EGIZABAL

“Umeek ez badute ondo pasatzen, ondoren doazen beste helburu guztiak, ziurrenik ez dira beteko”

Gertatuko zitzaizun haurra laguntzera guraso bat joan eta emanaldian haurra baino gehiago inplikatzeara?

B. E. Haurrak eta gurasoak inplikatzaren direnean, saioak oso politak izaten dira. Aurreko batean, guraso bat barreari eusten zegoen, ze iruditzen zaielako ipuin saioa ez dela eurentzat eta bera oso ondo pasatzen ari zen. Baina ipuinak zelako grazia egiten zion, lotsa ematen zion adieraztea.

Zer kontatua izateko, belarria non jartzen duzu?

B. E. Istorio gehienak irakurritakoak dira, baina moldatuta. Neuretzat moldaketa horietan zer egiten den da garrantzitsua. Niretzat garrantzitsua da entzutea, inguruan zer gertatzen den sensibilizazio edo kontzientziatze bat izateko moldake-



BEATRIZ EGIZABAL, SAIO BATEAN (ARGAZKIA: TOPALEKU).

ta horiek egiterakoan. Adibidez, rol este-reotipatuak aldatzeko. Niretzat ere garrantzitsua da neure ipuinekin zer mezu zabaltzen ditudan. Gaien inguruko ipuinak egiten ditugu. Haurrak konturatu gabe, aipatze hutsarekin zenbait gai landu eta normalizatze bidea egiten dugu.

Ipuin kontalariok transmisio lan horretan ere baduzue ardura?

B. E. Berdina da, ipuinarekin batera dator euskara, euskaraz kontatzen ditugulako. Berez tresna bat da. Neuretzat helburua dibertimendua da. Umeek ez badute ondo pasatzen, ondoren doazen beste helburu guztiak, ziurrenik ez dira beteko.

Euskararekin batera, zer da ipuin baten bidez transmititu dezakezuna?

B. E. Emozioak, gizartearen balore nagusiak... Ipuinek hezten dute. Argi dago, batez ere ipuin klasikoek erantzunak ematen dizkietela umeen beldur askori. Gizartean dauden balore nagusiak atsegin ez dituzunean zer gertatzen da? Ibiliko dituzula ipuin batzuk hori zalantzan jartzen dutenak. Gero nahiz eta ipuina modu batean kontatu, hurrek beste modu desberdin batean jaso dezakete. Askotan ezer esan gabe asko esaten da.

### “Oso garrantzitsua da gurasoek ere ondo pasatzea”

Zer aholkatuko zenioke, haurrari ipuin bat nola kontatu zalantzak dituen guraso horri?

Beatriz Egizabal. Helburua dibertimendua da. Oso garrantzitsua da, gurasoak ere ondo pasatzea. Azkenean kontua da denbora hori umearekin partekatzea, ez izatea ipuinaren ordua, gurasoak ere gozatzea. Haur txikien kasuan, liburuak oso tresna lagungarriak dira, marrazkiak baitituzte. Noizean behin liburutegietara joatea ere aholkatuko nieke. Eta asmatzera animatu nahi nituzke gurasoak, sormena erabiltzera.

Askotan ez da erraza ordea?

B. E. Gaitasuna denok dugu. Oso datu gutxirekin izugarriko istorioak muntatzen ditugu. Iruditzen zaizkigu gainera logikoak direla, edo bestela logiko egiten ditugu. Sormena soberan dugu. Baina gertatzen dena da, batzutan epaituak sentitzen garela. Adibide argia da, aiton amonena. Gurasoak ez daudenean, aiton amonak txikiekin askatasun osoz sentitzen dira. Gurasoen kasuan, denbora da arazoa.



## Haur asko, familia premian

### Apirilaren 16an Artzabalen, harrera familiei buruzko hitzaldia

**H**arrera familien elkarteko kide da Maite Pagola. Udalak antolatu duen hitzaldian hartuko du parte. NOAUA!ri adierazi dioenez, “babes gabeko haurren kasuak gero eta gehiago dira, eta jendeari harrera familia zer den azaltzea izango da hitzaldiaren helburu nagusia”. Maite Pagolarekin batera, ekimen honetan parte hartzen duen familia batek bere esperientzia azalduko du.

NOAUA! Zein da Artzabalen eskainiko duzuen hitzaldiaren helburua?

Maite Pagola. Harrera familiei buruzko sentsibilizazio kanpaina bat hasi dugu. Babes gabeko haurren kasuak gero eta gehiago dira, eta jendeari harrera familia zer den azaltzea izango da hitzaldiaren helburu nagusia. Eta informazioa zabaldu. Alde batetik alde teorikoa izango du eta bestetik, praktikoa. Zentzu horretan,

harrera familia bat joango da eta bere kasua azalduko du.

N. Adopzioarekin parekatzen badugu, zertan bereizten da harrera familia?

M. P. Harrera familia legezko neurri bat da. Jatorrizko familiarekin banantzen da haur hori, epe jakin baterako. Epe horretan teknikari batzuk saiatzen dira guraso horien egoera bideratzen. Beti ere, gurasoek zailtasun batzuk izan dituzte eta teknikariek haurra etxetik ateratzea erabaki dute. Askotan, harrera etxe batera joaten da edo harrera familia batera. Argi eduki behar da harrera familia epe mugatu baterako dela. Ez dela, adopzio bat bezala, betirako. Baizik eta denbora jakin baterako. Epe jakin baterako neurri bat da. Adopzioak, ordea, beste zentzu bat dauka.

N. Harrera familiaren premia uste baino handiago al da?



LAGUNTZA PREMIAN DIREN HAURREN KOPURUA UGALDU EGIN DA.

M. P. Bai, gero eta gehiago. Askotan pentsatzen dugu atzerriko jendea dela, baina asko bertakoak dira. Eta gure laguntza behar dute.

Hitzaldia: apirilak 16 astelehena.  
Non: Artzabalen, 19:00etan.



erredakzioa@noaua.com  
www.noaua.com

**Aste Santuan ez da NOAUA! aldizkaririk izango  
Datorren alea apirilaren 20an argitaratuko dugu**

**Oharrak, deialdiak, zorion-agurrak... ekartzeko azken eguna: apirilak 16, astelehena.  
Bien bitartean, Interneten aurkituko gaituzue [www.noaua.com](http://www.noaua.com) web orrialdean  
Gizarte sareetan: [facebook.com/noaua](https://www.facebook.com/noaua) [twitter.com/noaua](https://twitter.com/noaua)**

## Mintzalagunekoak, Igartubeiti baserrian

**U**surbilgo Etumeta AEK Euskaltegitik bidali digute aldameneko argazkia. Eta argazkiarekin batera, kronikatxo hau. "Martxoaren 18an Usurbilgo Mintzalagun taldeetan biltzen garenok Igartubeiti baserria bisitatu genuen. Bertan garai bateko bizimodu eta tolarre erraldoia ikusi ahal izan genituen. Ondoren Zumarragako Antigua baseliza izan genuen jomuga. Eguraldiaren laguntza handirik izan ez bagenuen ere, etxera itzuli aurretik, hamaiketako egiteko aterruna izan genuen".



MARTXOAREN 18AN IGARTUBEITIN IZAN ZIREN.

## Elikadura ekologikoari buruzko ikastaroa Haur Eskolan

**H**aur Eskolako gurasoen ekimena izan da. Euren blog-ean, [blogak.com/uhegurasoak/](http://blogak.com/uhegurasoak/) irakurri dugunez, "urtarrilean gurasoei galdetu genizuen ea zein ikastaro egin nahiko zenuket. Erantzun horietatik elikadurarena aukeratu dugu". Apirilaren 23an eta 25ean egingo da ikastaroa eta kontuan izan plaza kopurua mugatua izango dela.

Ikastaroa Haur Eskolako sukaldean egingo denez, gehienez 12 pertsonentzat egongo da tokia. Hurrenkeraren arabera onartuko dira. Beraz, animatuta bazaude, ez utzi azken ordurako.

**Egunak:** Apirilaren 23 eta 25ean.

**Tokia:** Haur Eskola.

**Ordutegia:** 18:00/20:00.

**Irakaslea:** Amaia Ullate, Haur Eskolako sukaldaria eta Ekolapiko taldeko kidea.



APIRILAREN 23AN HASIKO DA BAINA IZENA AURRETIK EMAN BEHAR DA.

**Nori zuzendua:** 0-3 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei bereziki, baina edozein gurasok parte har dezake.

**Izena emateko:** Ikastaroa doan da, baina derrigorrezkoa da izena ematea: [uhegurasoak@gmail.com](mailto:uhegurasoak@gmail.com)

**Antolatzailea:** Hitz Aho eta Haur Eskolako Guraso Taldea.

### Lagun asko

#### ukendu ikastaroan

**P**asa den astean izan zen saioa eta Etumeta AEK euskaltegian egin zen. 18 pertsonek hartu zuten parte.



AEK-KO BULEGOETAN EGIN ZEN IKASTAROA.

### Erroizpe-ko batzarra

**T**xokoaldeko Erroizpe elkar-teak batzarra deitu du apirilaren 15erako. Goizeko 11:00etan hasita, elkartean bertan.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

eraikuntzi@euskaltel.net

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

## K2K taldearen erronka:

# “Etiopiarako dirua lortzea da gure helburua”

**Z**onaldeko beste zenbait lagunekin batera, bi usurbildarrek 100 kilometroko ibilbidea osatuko dute oinez maiatzean Herralde Katalanetan. Elkartasun ekimena izango da, Etiopiarako laguntza biltzeko. Herritarrek ere laguntza biltzeko honetan parte har dezakete. Horretan dabilta sortu berria den K2K taldekoak, lehiakortasuna helburu ez duten erronkak prestatzen eta burutzen.

### NOAUA! Nolako da proba?

Iker Corral. Proba Gironan egingo da. 32 ordu ditugu 100 kilometroak egiteko. Ez dugu uste maiatzaren 5ean bukatuko dugunik, maiatzaren 6an amaituko dugu. Erronka, proba bukatzen saiatzea da, baina gehienbat, Etiopiarako dirua lortzea.

### N. Kirol ekimen bati buruz ari gara, baina elkartasunera bideraturikoa?

I. C. Proba berez, Intermon Oxfam Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatzen du. Baina ez da lasterketa bat. Parte hartzeko, talde bakoitzak 1.500 euro lortu behar ditu. Guk berez jada lortu ditugu. Gu orduan lasai gaude, proba egingo dugulako, baina ez dugu hor gelditu nahi. Etiopiarrek azpiegitura kaxkarrak dituzte, kilometro asko egin behar dituzte egunero ur bila joan eta bueltatzeko. Erronka hori da, guk kilometro horiek egitea etiopiarrek egin ez ditzaten.

### N. Herritarrek ere ekimena lagundu dezakete, baina nola?

I. C. Txapeldunen eta Artzabalen



100 KILOMETRO OSATU BEHAR DITUZTE ELKARTASUN LASTERKETA BATEAN.

eltxetxo bana jarria dugu. Ideia da, jendeak gure erronka zein den ezagutzea eta kolaboratzea. Bestalde, geure blog-ean edo probaren web orrian jendeak ekarpenak egin ditzake.

### Enkantea martxan

“Jende ezagunaren gauzak ari gara biltzen: Realeko jokalarien kamisetak, Miarritzeko rugby taldeko kideen kamisetak, Urko eta La Oreja den Van Gogh taldeen diskoak... hori guztia enkantean jarriko dugu Ebay bidez”, ohartarazi dute K2K taldeak. Herritarrek hauetako produktu bat erosita, “laguntzeko beste modu bat da” ohartarazi dute. Ekimen hauen eta taldearen gainerako nondik norakoen berri, K2K taldeak Facebook bidez berri emango du, baita noski, zabalik duten blogaren bidez ere: [kon2k.wordpress.com](http://kon2k.wordpress.com). Maiatzean parte hartuko duten probaren web gunea berriz honakoa da: [trailwalker.intermonoxfam.org/es/equipos/ficha/k2k%21-2](http://trailwalker.intermonoxfam.org/es/equipos/ficha/k2k%21-2)

### Joakin Agirreren desafioa

Apirilaren 1ean eguerdiko 12:30ean, Joakin Agirre “Izuela” kanako enborra menderatzen saiatuko da Usurbilgo Andazpe elkar-tearen aurreko plazan. Bere buruari jarri dion erronka ez da nolana hikoia; arerio nagusia bere burua baita.

58 urteko aiarrak eta aspaldi honetan Usurbilen bizi denak, herri kirol honekin aspalditik du lotura. Dena den, azkenaldi honetan zertxobait utzirik baldin bazegoen ere, oraingo honetan aukera paregabea du herritar orok nola-ko sasoian dagoen ikusi ahal izateko.



JOAKIN AGIRRE, ENTRENATZEN.

[www.noaia.com](http://www.noaia.com)

USURBILGO ATARIA

LATAILLADE  
ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

# Aste Santuaren ondoren jokatuko dira Usurbilgo Pilota Txapelketako lehen partidak

**A**pirilaren 14an hasiko da Usurbilgo Pilota Txapelketa. Honakoa, 40. edizioa izango da. Santixabel jaiak bitartean, eskuz binakako txapelketa honetako partidak jokatuko dira astebururo. Nagusien Txapelketa Aste Santuen ondoren jarriko da martxan. Jubenilen txapelketa, beranduago, maiatza aldean.

Nagusien mailan, 32 bikote arituko dira lehen. Zortzi bikote dagoeneko azken zortzirenetan dira (tartean, Santxo-Altuna usurbildarrak), eta horiek maiatzean hasiko dira jokatzeko. Baina beste 24 bikoteek ligaxka bat jokatu beharko dute, apirilaren 14an hasita. Ligaxkan arituko diren usurbildarrak hauek izango dira: Imanol Zinkunegi-Markel Galarraga, Joseba Bengoetxea-Iker Zinkunegi, Gorka Mendizabal-Lizeaga, Lizaso-Erreka, Portu-Zabala, Katalina-Aranalde, Errasti-Urruzola.



IAZKO FINALISTAK ETA GARAILEAK, JUBENIL ZEIN NAGUSIEN TXAPELKETETAN.

## Jubenilak, maiatzean

Jubenilak, ordea, maiatzean hasiko dituzte kanporaketa partidak. Zendoia-Telleria eta Ibargoi-Altuna bikoteak izango dira Usurbilen izenean arituko diren pilotariak.

## III. Futbito Txapelketa

**F**utbito Txapelketa laster hasiko da. Baina hori baino lehen, izena eman beharra dago. Behin hori itxita, zehaztuko da partiden egutegia. Betebeharrak hauek dira:

- Taldeko 40 euro (asegurua eta materialarentzat).
  - Norberaren Nortasun Agiriaren fotokopia.
  - 1995. urtekoak edo zaharragoak izatea.
  - Gauza guztiak biltzean, sobrea kiroldengan utzi (martxoaren 30a azken eguna).
- Antolatzailea: Itaya.

## Hasteko, nagusien mailako partidak

### APIRILAK 14 LARUNBATA

Usurbilen, goizeko 10:00etan

#### NAGUSIAK

Urretabizkaia-Esnaola / Eskudero-Etxeberria  
(Alegia) (Andoain)

Manzisor-O. de Urbina / Errasti-Urruzola  
(Antigua) (Usurbil)

Manterola-Ugalde / Lizaso-Erreka  
(Oiartzun) (Usurbil)

Olaetxea-Santxex / Iriarte-Iraizoz  
(Amezketeta) (Zizur)

### APIRILAK 15 IGANDEA

Usurbilen, goizeko 10:00etan

#### NAGUSIAK

Urmeneta-Jauregi / Fernandez-Goikoetxea  
(Añorga) (Alde Zaharra)

Iriondo-Murgiondo / Urruzmendi-Goikoetxea  
(Azpeitia) (Igeldo)

Esna-S. Sebastian / I. Zinkunegi-M. Galarraga  
(Hernani) (Usurbil)

Katalina-Aranalde / J. Bengoetxea-I. Zinkunegi  
(Usurbil) (Usurbil)

## Eskubaloia kiroldengan

2012/04/01, IGANDEA:

Kadete neskak, Foru Aldundiko trofeoa.  
11.15h. Usurbil KE - Elgoibarko Sanlo

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

ARRANDEGIA  
**PELLO**

PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

663 08 76 71 • 943 24 34 65

## “Sagarren denbora”, deserriari buruzko dokumentala

**D**eportazioa, deserria ezagutu duten euskal herritar bikote baten testigantza jasotzen du “Sagarren denbora” dokumentalak. Apirilaren 15ean, Sutegin ikusi ahal izango da, eta kultur etxera bertaratuko diren bi lagunentzako ere entzun ahal izango dira.

Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak eta Herrira! Taldeak proiektzioa antolatu dute, apirilaren 15erako. “Sagarren denbora” dokumentala ikusteko aukera eskainiko dute Sutegiko auditorioan, 19:30etatik aurrera. Sarrera doakoa izango da. Emanaldiak deportazioa eta deserria izango ditu hizpide nagusi.

Proiektzioaren ostean, bi testigantza



APIRILAREN 15EAN SUTEGIN.

entzuteko aukera egongo da. Batetik dokumentaleko protagonistetako bat Sutegin izango da, Kristiane Etxaluze. Eta harekin batera, aurreko legegintzaldian gobernu taldeko kide eta alkate orde izan zen Juanjo Olaizolak ere bere lekukotzaren berri emango du. Anaia Cabo Verden deportatua baitu.

## 75 urte eta sasoi betean



**S**antueneko bizilagun hauek omenaldi beroa jaso zuten larunbatean Aialde Berri sagardotegian, 2012. urte honetan 75 urte betetzen dituztelako. Oroigarri bana jaso zuten honako herritar hauek: Juan Verdasco Hernandez, Fidel Santamaria

Hernando, Gabriel Encinas Hernandez, Jose Martinez Torres, Valentina Alvarez Diestro, Mari Carmen Labaca Echeverria, Esteban Roteta Labaca, Maria Concepcion Zubiria Eguzkiza, Maria Zuriarrain Ayestaran eta Ixidora Borrezo Mendez.

## Hainbat deialdi greba egunerako

**O**stegun honetarako, martxoaren 29rako Hego Euskal Herrian eta estatu espainiarrean greba orokorra deitu dute sindikatuek, gobernu espainiarrak onarturiko azken lan erreformaren aurka. Hainbat mobilizazio deitu dira, 24 orduko lan uzte egunerako. Batetik, ostegun eguerdian, herrialde mailako manifestaldiak burutuko dira hiriburuetan; tartean, Donostian. Usurbildarrak Antiguara joateko deia zabaldu dute LAB sindikatutik.

### Hitzorduak herrian

Baina Usurbilen ere bi mobilizazio deitu dira. Lehena, goizeko 10:00etarako. Elkarretaratzea burutuko da Mikel Laboa plazan. Leku beretik abiatuko da bestalde, eguneko bigarren mobilizazioa. 18:00etan Kaxko ingurua zeharkatuko duen manifestaldia deitu baita, frontoi atzetik abiatuko dena. Bi hitzorduok Usurbilgo Ezker Abertzaleak eta LAB sindikatuak deitu dituzte.

## “Buah txabal” bakarrizketa saioa

**U**nai Iturriagak sortu eta Jon Zubiagak antzetzutako “Buah txabal” bakarrizketa saioa ikusteko aukera egongo da apirilaren 22an Sutegin, 19:00etan. Sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai egunean bertan, baita alde zurretik ere, Txiribogan eta NOAUA!n. Bazkideek eta 14-16 urte arteko gazteek 3 eurotan erosi ahal izango dituzte sarrerak, alde zurretik eta NOAUA!n.

## ANTXON QUIROGA ITURRALDE

-Frantsesean diplomatua, Hizkuntz Eskola Ofizialean.  
-Diplômé de l'Alliance Française au DALF niveau supérieur C2, français langue étrangère  
-Diplomatua UNED-en, frantsesa atzerriko hizkuntzako irakaskuntzako aditu gisa.  
- Internet eta Skype bidezko klaseak (1 eta 2 mailak)  
-Especialitatea: hastapenak/hasiberriak, hobekuntza, elkarriketa, hizkuntz adierazpenak, negozioetarako frantsesa, hizkuntza frantsesaren egitura.

**a.quiroga@ya.com 609754799**

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



## Agenda !!

### Martxoak 30 ostirala

- 17:00 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa Artzabalen.  
- 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

### Martxoak 31 larunbata

Elkartasun Eguna (ikus 5. orrialdea).

### Apirilak 1 igandea

- 10:00 Bigarren eskuko Azoka, "Merka2Sanmarcos" frontoian.  
- 12:00etan meza eta 14:00etan bazkaria Aialde-Berrin. Izen ematea itxita. Jubilatuen Astean.

## Goardiako farmaziak

Martxoak 29, osteguna  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 30, ostirala  
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 31, larunbata  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 1, igandea  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 2, astelehena  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Apirilak 3, asteartea  
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 4, asteazkena  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 5, osteguna  
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Apirilak 6, ostirala  
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Apirilak 7, larunbata  
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Apirilak 8, igandea  
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani  
Telefono zenbakia: 943 552 087.  
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA  
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

## Igandean Merka2Sanmarcos, Bigarren Eskuko Azoka

**A**pirilaren leian ospatuko da Usurbilen, "Merka2-Sanmarcos" izeneko bigarren eskuko azoka. Bertan, produktu erabiliak oparitu, saldu edo trukatu ahal izango dira. San Marko Mankomunitateak berak antolatu duen ekimenerako gonbitak eguntan banatu ditu Usurbilgo bizilekue-tan. Datorren hileko lehen eguneko azokak, informazio gunea, gordailu-salmenta eta salmenta zein truke postuak izango dituela berri eman dute.

Postuak jartzeko alde zuretik izena eman beharra dago. Informazio gehiago jasotzeko edo apuntatzeko, [www.merka2sanmarcos.org](http://www.merka2sanmarcos.org) web orrialdea dago, edo bestela 943 670 249 telefono zenbakia (9:00-17:30 artean, astelehenetik ostiralera).

Usurbilgo Bigarren Eskuko Azoka, apirilaren leian ospatuko da, 10:00-



JENDEA BILDU ZEN TXOKOALDEN  
EGIN ZEN TRUKE AZOKAN.

14:00 artean Dema plaza eta frontoi inguruan. San Marko-k halako ekimen bat antolatzen duen bosgarren aldia da, eta Usurbilgo hitzorduarekin emango zaio amaiera. Hain zuzen, otsaila amaieraz geroztik Mankomunitatea osatzen duten gainerako 9 udalerrietan ospatu baita jada, bigarren eskuko azoka: Hernanin, Urnietan, Pasaian, Astigarragan, Lezon, Lasarte-Orian, Oiartzunen, Donostian eta Erreterian.

## Aginagako txokoetan, izen ematea ixtear

**A**ntxomolantxa Kultur Elkartek Txokoak antolatu ditu Aste Santuetarako. Martxoaren 31n, eta apirilaren 2, 3, 4, 10, 11, 12 eta 13an goizez burutuko dira txokoak, 10:00-13:30 artean. Prezioa: 10 euro bazkideak, 20 euro gainerakoak. Izen ematea: martxoaren 29ra arte. Aste Santuko oporraldia igarota, tailerrak izango dira (eguneko 3 euro). Argibide gehiago, Antxomolantxakoekin harremanetan jarriz edo telefonoz: 610 875 287.

## Jubilatuen Astea, azken txanpan

**B**azkari batekin amaituko da Gure Pakeak antolatu duen astea. Hori igandean izango da. Ostiral honetan, Ixabel Agirresaroberen saioaz gozatzeko aukera izango dute.

**MARTXOAK 30, OSTIRALA**  
17:00 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa Artzabalen.

**APIRILAK 1, IGANDEA**  
12:00 Meza. 14:00 Bazkaria Aialde-Berrin. Izen ematea itxita.



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA



Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78
20170  
USURBIL



WELLA  
PROFESSIONALS



Alissi Bronte

INTZA  
JLEA PAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Azula zaintzeko, apirilera honako **TARIFA PLANA**  
hauek prestatu ditugu:

- AURPEGIAREN GARBIKETA + INGLEEN ETA BESAPEEN DEPILAZIOA **45€**
- AURPEGIAREN GARBIKETA + MANIKURA + PEDIKURA **59€**
- AURPEGIAREN GARBIKETA + MASAJEA **49€**

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu  
Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Egilea:  
UNAI ITURRIAGA

buah  
txabali!

Aktorea:  
JON  
ZUBIAGA

Apirilaren 22an  
Igandea  
19:00, Sutegin

Garikoitz Kortabitarte "Beti", 20 urte bueltako gazte bat da. Gatzizena beti lokalean sartuta egotetik dator. Bart, salbuespen moduan, herrira ateratzen da parrandara eta tragedia bat gertatu zaio: mugikorra galdu du. Zergatik da, ordea, mugikorra galtzea halako tragedia? Garikoitzek horren zergatia kontatzen digun bitartean, gazte horrek euskararekin duen harreman gatazkatsua, bere izaera xelebrea eta lokaletako gazteen gaineko topikoen parodia estremo baten lekuko egingo gaitu.

**Sarrera:** 5€ (Txiriboga tabernan, Noaualko egoitzan eta egunean bertan) Noaualko bazkideek eta 14-16 urte bitarteko gazteek 3€tan erosi ahal izango dute Noaualko egoitzan aldezturik.

Noaualko!!  
www.noaualko.com



# TXOTX!!



**Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!**

**AIALDE BERRI**

Tel: 943 365 031

Santuenea



**LARRE-GAIN**  
**DOLARE SAGARDOTEGIA**

Urtarriletik apirilera  
**TXOTX GARAIA**  
Ostiral, larunbat eta igande  
eguerdietan IREKITA  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hemani**  
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



**SAIZAR**  
*Betiko Sagardoa*

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 37 39 95  
[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



**ELUTXETA**  
**SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA**

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA  
**ARRATZAIN**  
**TOLARE-SAGARDOTEGIA**

Sagardo ekologikoa

Arratzain Baseria  
[info@agroturismoarratzain.com](mailto:info@agroturismoarratzain.com)  
Telf: 943 36 66 63  
20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29

**iruvin**  
sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)



**AGINAGA**  
*Sagardotegia*

Urte osoan txotxetik

Estreka kalea, 7  
Aginaga auzoa, USURBIL  
Tel eta Faxes: 943 36 67 10  
Tel: 943 37 06 68  
[a.sagardotegia@aginasagardotegia.com](mailto:a.sagardotegia@aginasagardotegia.com)